

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Gure proiektuak behar bezala funtziona dezan, hainbat bazkide eta hornitzaile nagusi behar ditugu: ile-apaindegiak eta estilisten sareak, beren zerbitzuak gure aplikazioaren bidez sustatu eta erabiltzaileek hitzorduak erreserbatu ditzaten.

Ile-apainketarako produktuen enpresak, publizitate-kanpaina eta sustapenerako.

3D teknologietan espezializatutako garatzaileak, aurpegien eta ile estiloen simulazio eraginkorrak sortzeko.

Ordainketa-pasabide eta erreserba-kudeaketarako hornitzaileak, Premium zerbitzuak eta erreserbak kudeatzeko.

Publizitate agentziak eta marketin enpresak, aplikazioaren ikusgarritasuna eta arrakasta sustatzeko. Bazkide horien arteko lankidetzak erabiltzaileentzako balioa handituko du eta gure helburuak lortzeko ezinbestekoak izango dira.